



## **Gertaera larrien gaitzespena eta Ikastolaren balioen defentsa**

Egun triste bezain mingarria dugu gaurkoa Ikastolan.

Hainbeste desira genuen, eta dugun, kanpo espazio berria erasotu digute.

Zaila da gertatutakoa ulertzea.

Kalte materialez gain, emakumeon aurkako mezu sexista, gogor eta iraingarriak egin dizkigute Ikastolako hormetan, pertsonalizatuak, eta min handia egiteko intentzio argiarekin.

Ikastolako komunitate osoak irmoki gaitzesten ditugu gertaera ulergaitz hauek.

Ez dugu onartuko horrelako eraso bortitzik gure herriaren etorkizuna eta hezkuntza loratzen den espazioan, Ikastolako eta bertako komunitatea herri honek duen altxorretako bat baita.

Hezkuntzak balioetan eta jarreretan irakasten, hezten gaitu. Eta guk, Ikastolako familia handi honek, balio horien artean azpimarratzen ditugu hezkidetzak, errespetua, elkarbizitza eta kultura-aniztasuna.

Guztion artean eraikitzen ditugu balioak, eta horiek lantzea eta sendotzea da gure eginkizuna, ikasgeletan eta ikastolako espazio guztietan.

Gure Ikastola hezkuntza komunitate anitza dugu, eta elkarlana, elkar errespetatzea eta elkarbizitza ditugu gure eguneroko ardatz.

Gaur, gure begi aurrean porrotaren irudia ikusi baldin badugu ere, oraindik sinisten dugu mundu hau eta herri hau aldatzeko hezkuntzak duen indarrean. Horrela jarraituko dugu, bat eginda eta indartsu, biharko gizarte hobea eta justuagoaren alde.

Egin dezagun guztion artean, baina batez ere hezkuntzaren bidez, mundu hau leku hobea bat!

**IKASTOLAREN eta HERRIAREN AURKAKO ERASO GEHIAGORIK EZ!**